

EMAKUMEEN TALDE AUTOFINANTZATUA

BABES EKONOMIKOA ETA ASKOZ GEHIAGO

Ez dira pauso asko behar komunitate autofinantzatu bat sortzeko: taldea elkartu, aurrezkiak kutxa komun batean bildu, eta elkarri maileguak emateko baldintzak adostu. Hala lortu du Penedeseko (Herralde Katalanak) emakume talde batek sostengu ekonomiko eta babesa ematen dien proiektua sortzea. Hori guztia, ohiko bankuen moldeak iraulita eta konfiantzan oinarrituta.



Lander Arretxea Bereziartua

@larretxea

ARGAZKIA: ACAF WINKOMUN



Zerbait erosi edo ordaintzeko premia izan eta norberak dituen sosekin nahikoa ez denean, aukera bat baino gehiago dago. Hori bai, desatseginak dira gehienak. Bankuan mailegua eskatzea izan daiteke aukera bat, baina ez dira gutxi horrek beldurtzen dituenak. Beste bat, lagunari edo senideari eskatzea. Hirugarren bide bat ere bada ordea: antolatzearena. Horrela sortzen dira elkarri maileguak emateko formulak aurkitu dituzten komunitate autofinantzatua. Penedeseko (Herrialde Katalanak) emakume talde batek sei urte egin ditu bide hori landu eta ikasten. Bilgune Feministak antolatutako Ekonomia Feministako Foroan haien proiektua azaldu zuten zenbait kidek.

Emakumeen babes sarea

2011n jarri ziren martxan, oraindik lau bakarrik zirela. “Gu feminismotik gatoz, eta ikusi genuen ekonomia zela gutxien menperatzen genuen gaia, ez genuela jakintzarik ez ohiturarik halakoetan aritzeko. Horregatik izan da erronka berezia urrunekoa zitzaigun gai batera hurbiltzea”. Bide horretan, komunitate autofinantzatuen elkarrekin den ACAF-en (*Asociación de Comunidades Autofinanciadas*) laguntza izan dute.

Entzuna zuten zerbait halako taldeez, eta halako komunitate autofinantzatuen (KAF) ohiko metodologia izan dute abiapuntu. Bertatik ikasitakoa hartu, eta euren neurri eta beharretara egokitu dute. Dena den, beraien da emakumeek soilik osatutako Espainiako Estatuko komunitate autofinantzatu bakarria. “Elkar babesten dugun emakume sarea gara, eta hasieratik argi genuen halakoa izan behar zela”.

Taldearen lehenengo mailegua 30 eurokoa izan zen, baina dagoeneko, 3.000 euro inguruko kapitala pilatu dute. Kide kopurua ere hazi da, lau hasi baziren, hamahiru dira orain, jatorri eta egoera anizteta. Sei urteotan ikasitakoarekin eman diote pixkanaka proiektuari forma, ikasi eta haien beharrak aldatu ahala, arauak eta funtzionamendua ere moldatuz.

Banku zikin bat, baina bestelakoa

Zer diren azaltzen hasita, azken finean “banku zikin bat” direla diote; euren interes, mailegu, eta arauekin. Hori bai, gutxienez, interesetatik lortzen duten etekina kide guztien zerbitzura jartzen

» Taldearen lehenengo mailegua 30 eurokoa izan zen, baina dagoeneko, 3.000 euro inguruko kapitala pilatu dute. Kide kopurua ere hazi da, lau hasi baziren, hamahiru dira orain

» “Lagunei edo familiako kideei dirua eskatzea arriskutsua da, harremanak gaiztotzen ditu batzuetan, edo dependentziak sortu. Horregatik da hau askatzailea”

dute. Nola? Hilabete behin bildu, eta erabaki guztiak modu kolektiboan hartuz. Bozketak baztertzea erabaki dute gainera. Adostasuna lortzeko ahalegina egiten dute beti.

Funtzionatzeko modua dirudiena baino errazagoa da: hilabeteroko bileran kide bakoitzak zenbateko ekarpena egin nahi duen erabakitzen du: batzuek 10, besteek 30, besteren batek batere ez... Pixkanaka pixkanaka denen artean poltsa puzten dute horrela, gero, norbaitek mailegu baten premia duenean utzi ahal izateko. Horrela denean, jarrita duen kopuruaren laukoitza eska dezake, asko jota, kide bakoitzak. Hamabi hilabeteko epean, eta %1eko interesarekin itzuli behar izaten du gero.

Konfiantza da abala

Konfiantzaren papera ere bada bestelako banku ereduetatik bereizten dituen zerbait. Mailegua eskatzen duenak ez du abalik behar izaten, eta gainera, atzerapenak zigortzeko mekanismorik ez dute. Horrek ez die, ordea, arazorik sortu. Dirua zertarako nahi duten ere

ez dute azaldu beharrik, eta hala, inor ez da epaitua sentitzen, bere motibazioa dena dela. “Hilabete bukaerara iritsi ahal izateko eskatu dugu batzuetan, edo etxetresna bat erosteko, baina baita bidaiatzeko ere...”. Zer gertatzen da aldi berean askok eskatu dutela-eta, nahikoa diru ez badago? Ez omen zaie, oraindik, halakorik gertatu, “baina gertatuko balitz, dagoen hori ahalik eta modu orekatuenean banatuko genuke”.

Dirua kontu korronteetan soilik gorde daitekeela irudikatzen dugu askok, baina ez, Penedeseko emakume hauek bestelako formula bat aurkitu dute. Giltza bakarria duen kaxa batean gordetzen dute dena, eta txandaka, kide batetik bestera igarotzen da, inor arduradun izendatu gabe. Hori bai, tentazioei iskin egiteko-edo, giltzarekin gauza bera egiten dute, eta ez ditu inoiz pertsona berak bi gauzak batera izaten.

Hori guztia posible da, kide guztien artean konfiantzazko harreman berezia dutelako. “Ez gara lagunak, ez gara zineira edo mendira elkarrekin joaten, baina elkar ulertu eta laguntzeak sortzen ditu lotura berezi batzuk eta hori ezinbestekoa da halako talde bat osatzeko”.

Ahalduntzeko bidea

Sortu duten KAFaren funtzio nagusia elkarri babes ekonomikoa ematea izanagatik, ez da hori egiten dien ekarpen bakarria. “Alde batetik, aurrezten ari zara eta badakizu diru gehiago behar izanez gero bertatik jaso dezakezula, baina aldi berean komunitate bat ari zara sostengatzen, interes eta gogo antzekoak dituzten beste emakume batzuk osatzen duten komunitatea gainera”. Egiten dutena eraldaketa sozialean eragiteko tresna badela uste dute, eta horregatik, hitzaldi, tailer eta antzekoak antolatzen dituzte.

Taldean parte hartuz garatu duten ezagutzari ere balio handia ematen diote, orain arte oso arrotzak zitzaizkien gaiak ulertu eta berrinterpretatzen asmatu baitute. Ahaldunduagoak sentitzen dira orain, bai talde baten babesa dutelako, baina baita ezagutzak ematen duen segurtasunari esker ere. Hori guztia, ekonomikoki autonomoago izateko aukera ahaztu gabe: “Lagunei edo familiako kideei dirua eskatzea arriskutsua da, harremanak gaiztotzen ditu batzuetan, edo dependentziak sortu. Horregatik da hau askatzailea”. ■